

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AMURRIOKO UDALA

Behin betiko onestea jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen 6. zenbakiko zerga ordenantzaren aldaketa

Udalbatzak 2021eko irailaren 30eko bilkuran erabaki zuen behin-behineko onespena ematea jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen 6 zenbakiko zerga ordenantzaren aldaketari (espediente zenbakia: 2021/S062/8). Erabaki hori 2021eko urriaren 13ko ALHAOn (117. zk.) eman zen argitara. Erabaki horren aurkako erreklamazioak aurkezteko epean inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, erabakia behin betiko bihurtzen da, halaxe agintzen baitu Toki ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.3 artikuluan. Horrela, bada, argitaratu egiten da, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 70.2 artikuluan eta Toki ogasunak arautzen dituen Legearen testu bategina onesten duen 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak 17.4 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako. Zerga ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Hona hemen testu osoa hitzez hitz:

UDALAREN 6 ZENBAKIKO ZERGA ORDENANTZA, JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA

I. XEDAPEN OROKORRAK ETA ZERGAREN IZAERA

1. artikulua.

Amurrioko Udalak, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/1989 Foru Arauak, 16.1.b) artikuluan eta uztailaren 19ko 43/1989 Foru Arauak ezarritakoarekin bat etorriz, udal honek jarduera ekonomikoen gaineko zerga ezarri eta eskatzen du.

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga zuzeneko zerga erreal da; enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritze hutsa kargatzen du ordenantza honetan ezarritakoari jarraituz.

2. artikulua.

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. ZERGA EGITATEA

3. artikulua.

1. Zerga gaia Amurrioko udalerrian enpresa, lanbide edo arte jardueretan aritzea da, lokal jakin batean zein lokalik gabe, eta jarduera zergaren tarifetan zehaztuta egon zein ez egon.

2. Zerga honen ondorioetarako hauexek hartuko dira enpresa jardueratzat: abeltzaintza (loka-bea izanez gero), meatzaritza, industria jarduerak, merkataritza eta zerbitzu jarduerak. Horien artean ez dira sartzen nekazaritza, beste jarduera baten mendeko abeltzaintza, basogintza eta arrantza; beraz, horiei ez zaie zerga ezarri behar.

Beste jarduera baten mende ez dagoen abeltzaintzat joko dira kasu hauetakoren batean dauden abere multzoak:

- a) Abeltzainak abereak larratzen diren lurak ez erabiltzea nekazaritzarako ez basogintzarako.
- b) Landa finketatik kanpo ukuiluratutakoak.
- c) Transhumantzia dabilena.
- d) Abereak hazten diren finkakoak ez diren pentsuez elikatzen direnean, batez ere.

3. Jarduera batek enpresa, lanbide edo arte izaera izango du produkzio bitartekoak eta giza baliabideak (edo bietakoren bat) bere kabuz antolatzen dituenen, ondasunen edo zerbitzuen produkzioan edo banaketan parte hartzeko asmoarekin.

4. Zergapeko jarduerak Arabako Foru Aldundiak onartutako zergaren tarifetan zehaztuko dira.

4. artikulua.

Zergapeko jarduera egiten dela frogatzeko zuzenbidean onar daitekeen edozein bitarteko erabiliko da eta, bereziki, Merkataritzako Kodeko 3. artikuluan ezartzen direnak.

5. artikulua.

Jarduera hauek ez dira zerga egitate, eta, beraz, ez daude zergapean:

1. Enpresen aktibo finkokoak izan eta eskualdatu baino bi urte lehenagotik ibilgetu horretan behar bezala inbentariaturik egon diren ondasunak eskualdatzea, eta saltzailearen erabilera partikular eta pribatuko ondasunak saltzea, baldin eta aldi berean erabili baditu.

2. Lan pertsonalen edo zerbitzu profesionalen ordainez jasotzen diren produktuen salmenta.

3. Establezimenduaren apaindurarako baino ez diren artikulua erakustea. Aldiz, bezeroei oparitzeko diren gauzak erakustea zergapean dago.

4. Txikizkako salmentan, egintza edo eragiketa bakarra burutzea.

6. artikulua

1. Zerga honetatik salbuetsita daude:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Arabako Foru Aldundia eta udal erakundeak, bai eta estatuaren organismo autonomoak eta lurralde administrazio horietako antzeko izaerako zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Nazioarteko ituna edo hitzarmena dela bide salbuespena aplikatu dakiekeen subjektu pasiboak.

c) Gizarte Segurantzaren, mutualitateak eta montepioak kudeatzen dituzten entitateak, indarrean dagoen legediarekin bat etorritik eratuak.

d) Ikerkuntza erakunde publikoak eta irakaskuntza establezimenduak (maila guztietan), Estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Arabako Foru Aldundiko udal erakundeetako funtsekin osoki ordainduak; ongintzakotzat aitortutako edo erabilgarritasun publikoa duten fundazioen kontura ere ordainduak; eta maila guztietako irakaskuntza establezimenduak, mozkinik ateratzeko asmorik gabe hezkuntza itunean daudenak (nahiz eta ikasleei liburuak edota mahairako artikulua eman, edota mantenu erdiko zein barnetegi zerbitzuak eskaini), nahiz eta salbuespen gisa, establezimendu berean saldu irakaskuntza horretara zuzendutako tailerretako produktuak; betiere, salmentaren zenbatekoa (partikularentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea) eskusiboki lehengaiak eskuratzeko edo establezimendua sostengatzeko bideratzen bada.

e) Ezindu fisiko, psikiko eta sentsorialen elkarrekin edo fundazioak, irabazteko asmorik gabeak, ezinduekin egiten dituzten pedagogia, zientzia, asistentzia eta enplegu jarduerengatik, xede izanik haien irakaskuntza, heziketa, birgaitzea eta zaintza, nahiz eta zentroan bertan saldu helburu horietarako egiten diren tailerretako produktuak, baldin eta salmentaren zenbatekoa, partikularentzako edo hirugarren pertsonentzako erabilgarritasunik gabea, bideratzen bada soil-soilik lehengaiak eskuratzera edo zentroa sostengatzera.

f) Gurutze Gorria eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuk.

g) Jarduera batean hasten diren subjektu pasiboak, hasi eta lehenengo bi zergaldietan.

Horri begira, honako hauek ez dira joko jarduera hasi den kasutzat:

1) Jarduera lehen beste titulartasun batekin egin bada; halakotzat hartuko dira bategiteak, zatikatzeak eta jarduera arloak eranstea.

2) Subjektu pasiboa Merkataritzako Kodeko 42. artikuluekin bat etorritzat erabiltzeko sozietate talde bateko kidea bada; salbuespena: jarduera berria izatea, aurretik taldeko ezein enpresak egin ez duena.

3) Erakundearen ehuneko 25 baino gehiago jarduera berean aritu diren enpresen esku badago.

h) Eragiketetan 1.000.000 euro baino gutxiagoko eragiketa bolumena duten subjektu pasiboak.

Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunei dagokienez, establezimendu iraunkor bidez aritzen direnentzat baino ez da izango salbuespena, baldin eta eragiketetan 1.000.000 eurotik beherako bolumena badute.

Edonola ere, salbuespen hori aplikatzeko, ezinbestekoa izango da subjektu pasiboek ez izatea, zuzenean edo zeharka, apartatu honetan jasotzen den eragiketa-bolumenaren baldintza betetzen ez duten enpresen ehuneko 25 baino gehiagoko partaidetzarik, non eta ez diren arrisku kapitaleko sozietate edo funtsak, hain zuzen ere Sozietateen gaineko Zergaren 37/2013 Foru Arauak 77. artikuluan zehazten dituenak, baldin eta partaidetza sozietateen xedea betetzearen ondorio bada.

Apartatu honetan arautzen den salbuespena aplikatzeko erregela hauek hartu behar dira kontuan:

1. Eragiketen bolumena abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, 5. artikuluan 1. apartatuan ezartzen duenaren arabera kalkulatu da.

2. Sozietateen gaineko zergaren, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboaren eragiketen bolumena haxe izango da: aitorpena zerga zorra sortu den urtearen aurreko urtean aurkeztu beharreko zergaldikoa.

Zergen foru arau orokorrak 35. artikuluan 3. apartatuan aipatzen dituen sozietate zibilen eta entitateen eragiketen bolumena izango da zerga honengatik zorraren sortzapen urtearen azken aurreko urtekoa.

Zergaldi hori urte naturala baino laburragoa izan bada, eragiketen bolumena urtebeteraino igoko da.

3. Subjektu pasiboaren eragiketen zenbatekoa kalkulatzeko, hark egindako jarduera ekonomikoaren multzoa hartuko da kontuan.

Erakundea, Merkataritza Kodearen 42. artikuluari jarraikiz, sozietate talde bateko kidea bada, aurrean adierazitako magnitudeak taldeko entitate guztienak izango dira.

4. Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, Espainian dauden establezimendu iraunkorren multzoari egotz dakioken eragiketa bolumena hartuko da kontuan.

2. Artikulu honetako aurreko apartatuko d) eta e) letretan arautzen diren onurak bidezkoa denean emango ditu Udalak, subjektu pasiboaren berariazko eskaera izapidetu ondoren. Eskaerarekin batera onura aplikatzeko kontuan eduki beharreko frogak aurkeztu behar dira. Onura horien emakida indarrean egongo da emateko kontuan hartutako inguruabarrak aldatu arte.

3. (Ezabatu egiten da).

4. Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauak 26.3 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritzat, kooperatiba babestuek zergaren kuotaren ehuneko 50eko hoberia izango dute. Hoberi hori partikularrak eskatu beharko du, eta dagokion eskaera aurkeztu duen ekitaldian jarriko da indarrean.

III. SUBJEKTU PASIBOAK

7. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira bai pertsona fisikoak eta juridikoak, bai Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan 3. apartatuak aipatzen dituen erakundeak, baita testamentu ahalordea edo gozamen ahala erabili gabe duten herentziak ere, baldin eta Amurrioko udalerrian egiten bada zergapeko egitatea sortzen duten jardueretatik edozein.

Testamendu ahalordea edo gozamen ahaldua erabili gabe duten herentziei dagokienez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 24. artikuluko 1. apartatuan ezartzen duena bete zein ez bete, jarduera ekonomikoa egiten dutela joko da.

IV. ZERGA KUOTA

8. artikulua.

Zerga kuota kalkulatzeko, zergaren tarifak aplikatuko dira, dagokion araudiaren eta koefizienteen, indizearen eta onetsitako hobarien arabera.

9. artikulua.

1. Zergaren tarifetan finkatutako gutxieneko kuotei koefiziente bakarra aplikatuko zaie egingdako jarduera guztietarako: 1,05.

2. Aurreko apartatuan aipatutako koefizientea aplikatzearen ondorioz aldatutako kuotei hurrengo apartatuan adierazitako indize eskala aplikatuko zaie. Eskala horrek establezimenduaren egoera fisikoa haztzen du, Amurrioko udal mugartean lokalaren egoera fisikoaren arabera.

3. Hauek dira aplikatu beharreko indizeak:

KALE KATEGORIA	INDIZEA
1. kategoria	1,15
2. kategoria	1,10
3. kategoria	1,05
4. kategoria	1,00
5. kategoria	0,95
6. kategoria	0,90
Gainerako kategoriak	0,85

4. Ordenantza honen eranskinean, udalerriko kale izendegia sailkatzen da, kategoriatan sailkatuta. Bideren bat sailkapen horretan sartuta ez badago, bide horrekin gurutzatzen diren kaleetatik handiena duen kaleari dagokiona izango da aplikatu beharreko indizea, eta, halakorik ezean, bide horretatik hurbil daudenena.

5. Zortzigarren kategoria aplikatuko zaie zergaren matrikulan kokapen kalea esleituta ez duten jardueri.

V. ZERGALDIA

10. artikulua.

1. Zergaldia urte naturala da, alta aitortpenak direnean izan ezik; horrelakoetan, zergaldiaren jarduera hasi denetik urtea bukatu artekoa izango da; horrek ez du eragotziko artikuluko honen 3. zenbakian xedatutakoa ezartzea.

2. Zerga zergaldiaren lehen egunean sortuko da, eta kuotak murriztezinak izango dira, alta aitortpenetan jarduera hasi den eguna urtearekin bat ez datorrenean izan ezik; horrelakoetan, jarduera hasten den egunetik abenduaren 31ra bitarteko egunen kopuruaren arabera proportzionalki kalkulatu da eta alta ematen den egunean bertan sortuko da.

3. Baja aitortpena egiten bada, zergaldia urtarrilaren 1etik baja aitortpena aurkezten den egunera artekoa izango da. Horrelakoetan, zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga eta kuota urtarrilaren 1etik baja aitortpenaren egunera arte dauden hilen proportzioaren arabera kalkulatu da. Hilabete kopurua kalkulatzeko, baja aitortpena aurkezten den hila osorik zenbatuko da.

Zenbaki honetan xedatzen dena ez da aplikatuko baldin eta jarduera hasi den egunetik baja aitortpena egin arte hamabi hilabete pasatu ez badira. Hala denean, baja eguna baja aitortpena aurkezten den urteko abenduaren 31 izango da. Alta eta baja urte natural berean gertatzen badira, diru sarrerak ez dira inolaz ere itzuliko.

4. Ikuskizunei dagokienez, kuotak jarduketa bakartuen arabera ezarri badira, sortzapena haietariko bakoitza egitean gertatuko da, eta horiei dagozkien aitortpenak arau bidez ezarri den bezala aurkeztu beharko dira.

VI. ZERGAREN KUDEAKETA

11. artikulua.

1. Zerga hau Amurrioko udalerrian kudeatzeko, likidatzeko, ikuskatzeko eta biltzeko (borondatezko aldiaren zein premiamendu bidean) ahalmenak bertako udalak dauzka.

2. Eskumenak direla eta, Udalari dagokio zergaren matrikula jendaurrean jartzea, errekursoak eta erreklamazioak ebaztea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea, eta zergaren inguruko laguntza eta informazioa ematea zergadunei.

3. Amurrioko Udala Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean arituko da matrikularen mantentze eta prestakuntza lanetan, jarduera ekonomikoen kalifikazioan, kuoten ezartzean eta gainerako eskumenetan.

4. Salbuespenak emateko eta ukatzeko ezinbestekoa da hartutako ebazpena Foru Aldundiari jakinaraztea.

12. artikulua.

1. Zerga hau kudeatzen da Amurrioko udalerrirako urtero prestatuko den matrikulatik abiatuta, zeinetan sartuta egongo baitira subjektu pasiboak, egindako jarduera ekonomikoen, zerga zorren eta, hala badagokio, foru errekariguen erroldak. Amurrioko Udalak matrikula jendearen eskura jarriko du.

2. Subjektu pasiboak behartuta daude udal honetan dagozkien alta aitortpenak aurkeztera, eta matrikulan sartzeko beharrezkoak diren elementu guztiak adierazira, arau ezartzen den epearen barruan eta Arabako Foru Aldundiak onetsitako ereduaren bitartez, ordenantza honen 6. artikuluko 1. apartatuko a), b), c) eta f) letretan aipatzen diren subjektuak izan ezik.

Halaber, subjektu pasiboek zergapeko jardueretan aritzean gertatu eta zerga honen ordaintetan eragina duten aldaketa fisiko, ekonomiko eta juridikoen berri emateko jakinarazpena aurkeztu behar diote udal honi. Aldaketen jakinarazpena arau ezartzen den epean aurkeztu beharko da eta Arabako Foru Aldundiak onetsitako ereduaren erabiliz. Hori dela eta, jakinarazpen horietan nahitaez adierazi beharko da jarduera egiten den higiezinaren katastroko erreferentzia.

Era berean, matrikulan inskribatuta dauden jardueretako batean aritzeari uzten dioten subjektu pasiboak behartuta daude udal honetan jardueran baja eman izanaren jakinarazpena aurkeztera, Arabako Foru Aldundiak onartutako ereduaren bidez, eta hilabeteko epean, jarduera utzi zuten egunetik zenbatzen hasita. Subjektu pasiboa hiltzen bada, kausadunek egin beharko dute baja jakinarazpena.

3. Zerga ikuskapenaren edo zergak kudeatzeko jarduketan ondorioz, bai eta alden zein jakinarazpenen ondorioz ere, erroldetan datuak sartzeko edo dauden datuak kentzeko edo aldatzeko administrazio egintzat joko dira, eta zergaren erroldaren aldaketa ekarriko dute. Matrikulan egiten den aldaketa batek errolda bateko datuaren bat ukitzen badu, lehenbizi ildo bereko aldaketa egin beharko da datu horretan, nahitaez.

13. artikulua.

1. Udalak matrikula jaso eta gero, jendaurrean jarriko du hamabost eguneko epean, zerga-dunek azter dezaten eta, hala badagokio, egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten.

2. Jarduerak kalifikatzeko eta kuotak ezartzeko egintzen aurkako errekurtsioei eta erreklamazioei Zergen Foru Arau Orokorrean xedatzen dena aplikatuko zaie, errekurtsio eta erreklamazio ekonomiko-administratiboetarako. Administrazio errekurtsioak ebazteko eskumena Arabako Foru Aldundiak dauka. Horrelako errekurtsioa edo erreklamazioa jarrita ere errekurritutako egintzaren betearazpena ez da etengo.

3. Jendaurreko aldia amaiturik eta erreklamazioak jasota, emaitzen ziurtagiria bidaliko zaio Arabako Foru Aldundiari, onar dezan eta, hala badagokio, ebazpena eman dezan.

14. artikulua.

Zerga honen kargapeko jardueren alta aitortzen kasuan, udalak zerga alde aurretik ordaintzeko eskatu ahal izango du, autolikidazioaren bidez.

VII. XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Jarduera ekonomikoen gaineko zerga aplikatzen hasten den egunean jarduera komertzial eta industrialen zerga lizentzian edo jarduera profesional eta artistikoen lizentzian onura fiskalen bat dutenek onura horiek izaten jarraituko dute aipatutako lehen zergan, iraungitzen diren egunera arte; epemugarik ez badute, 1994ko abenduaren 31n iraungitza joko dira, egun hori barne.

2. Aurreko apartatuan zehaztutako zerga onurak aitortzeko, ordenantza honen 6.2 artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

VIII. AZKEN XEDAPENA

Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen 6. zenbakiko zerga ordenantza eta haren eranskina 2022ko urtarrilaren 1ean jarriko dira indarrean, eta horrela jarraituko dute aldatzea edo indargabetzea onetsi arte.

**UDALAREN 6 ZENBAKIKO ZERGA ORDENANTZA, JARDUERA
EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUENA**

ERANSKINA

KALEAREN IZENA	ZENBAKIA	KATEGORIA
Abiaga	1-2	4
Abiaga	3-999	8
Abiaga	4-1000	8
Abiagabarri	Kale osoa	3
Adarraga (industrialdea)	1,3,9-999	6
Adarraga (industrialdea)	5 eta 7	8
Adarraga (industrialdea)	2-1000	6
Aiara	1- 9	1
Aiara	2- 18	1
Aiara	11- 17	2
Aiara	20-28 eta 32	2
Aiara	19-999	3
Aiara	30, 34-1000	3
Aldai	1- 13	1
Aldai	2- 18	1
Aldai	20- 24	2
Aldai	15- 17	2
Aldai	19-999	5
Aldai	26 -1000	5
Aldaiondo	Kale osoa	5
Aldaiturriaga (industrialdea)	1-3	7
Aldaiturriaga	5-7	7
Aldaiturriaga (industrialdea)	2-6	7
Aldaiturriaga (industrialdea)	9-999	8
Aldaiturriaga (industrialdea)	8-1000	8
Araba	1-3	2
Araba	2-14	2
Araba	5-999	3
Araba	16-1000	3
Arenalde	1-3	4
Arenalde	2-8	4
Arenalde	5-999	8
Arenalde	8-1000	8
Aresketa	Kale osoa	8
Armurubenta	Kale osoa	1
Armuruko San Antón plaza	Plaza osoa	1
Armurulanda plaza	Kale osoa	1
Bañuetaibar	2- 32	2
Bañuetaibar	1-27	2
Bañuetaibar	34-38	3
Bañuetaibar	29-43	3
Bañuetaibar	45-999	4
Bañuetaibar	40-1000	4
Barrena	Kale osoa	5
Bergantza auzoa	Kale osoa	8
Bideko	Kale osoa	8
Boriñaur enparantza	Plaza osoa	2
Boriñaur kalea	1	2

KALEAREN IZENA	ZENBAKIA	KATEGORIA
Boriñaur kalea	2- 6	2
Boriñaur kalea	3-999	5
Boriñaur kalea	8 (hiltegia)-1000	5
Boriñoguren	Kale osoa	5
Dionisio Aldama	1-13	1
Dionisio Aldama	2-8	1
Dionisio Aldama	10-16	2
Dionisio Aldama	15	3
Dionisio Aldama	18-1000	3
Dionisio Aldama	17-999	5
Elexondo	1-29	1
Elexondo	2-10	1
Elexondo	12-26	2
Elexondo	31-999	3
Elexondo	28-1000	3
Errotatxu	Kale osoa	5
Etxebarriaur	2	1
Etxebarriaur	4-1000	2
Etxebarriaur	1-999	2
Etxegoienbidea	1-9	1
Etxegoienbidea	11	2
Etxegoienbidea	2-8	2
Etxegoienbidea	13-19	3
Etxegoienbidea	10-16	3
Etxegoienbidea	21-999	8
Etxegoienbidea	18-1000	8
Federico Barrenengoa	Kale osoa	5
Félix Murga	1-7	3
Félix Murga	2-6	3
Félix Murga	9-999	4
Félix Murga	8-1000	4
Foru	9-999	1
Foru	2-1000	1
Foru	1-7	2
Frontón	Kale osoa	1
Gernikako Arbola	Kale osoa	4
Goiena	Kale osoa	5
Goikolarra plaza	Plaza osoa	5
Intxaurdui	1-999	3
Intxaurdui	2	3
Intxaurdui	4-1000	4
Iritxusi	1-999	3
Iritxusi	4 -1000	3
Iritxusi	2	5
Iturralde	Kale osoa	1
Jesús Galíndez	1	1
Jesús Galíndez	3-999	2
Jesús Galíndez	2-1000	2
José Madínabeitia	Kale osoa	1
José Pikatza	Kale osoa	2
Juan de Aranoa	Kale osoa	4
Justo Etxeguren plaza	Kale osoa	1

KALEAREN IZENA	ZENBAKIA	KATEGORIA
Landaburu	1-5	3
Landaburu	2-16	4
Landaburu	7-17	4
Landaburu	19-999	5
Landaburu	18-1000	5
Landaburugoiko	Kale osoa	8
Landako	1-3	1
Landako	2-12	1
Landako	25-27	2
Landako	14-30	2
Landako	31-999	3
Landako	5-23 eta 29	5
Landako	32-1000	5
Larrabe	Kale osoa	5
Larrabide	Kale osoa	8
Larrinbe (industrialdea)	Kale osoa	7
Larrinaga	Kale osoa	1
Letobe	1	5
Letobe	2-1000	5
Letobe	3-999	8
Lexarraga Plaza	Plaza osoa	3
Lexarraga Kalea	1-3	3
Lexarraga Kalea	5-999	5
Lexarraga Kalea	2-6	5
Lexarraga Kalea	8-1000	8
Lucas Rey	1-999	3
Lucas Rey	2 al 16	3
Lucas Rey	18	4
Lucas Rey	20-1000	8
Mamitu	5	5
Mamitu	1,3,7-999	8
Mamitu	2-1000	8
Maskuribai	1 al 5	2
Maskuribai	7 al 11	5
Maskuribai (industrialdea)	2 -1000	6
Maskuribai (industrialdea)	13-999	8
Mendi	Kale osoa	8
Mendigorri	Kale osoa	8
Mendiko	2-8	1
Mendiko	1	1
Mendiko	10-26	3
Mendiko	3-17	3
Mendiko	28-70	4
Mendiko	19-31	4
Mendiko	72-84	5
Mendiko	33-55	5
Mendiko	86-999	8
Mendiko	57-999	8
Mendixur	Kale osoa	8
Mintegi	Kale osoa	5
Olakoibar	Kale osoa	5
Orue	Kale osoa	8

KALEAREN IZENA	ZENBAKIA	KATEGORIA
Refor	Kale osoa	6
Saratxo (industrialdea)	Kale osoa	7
Sagarribai	1-5	5
Sagarribai	7-999	8
Sagarribai	2-1000	8
Sagartoki	Kale osoa	2
San Jose auzoa	Kale osoa	5
San Roque	3-17	5
San Roque	10,12,14,16,22-30	5
San Roque	1 eta 19-999	8
San Roque	2-8,18-20,32-1000	8
Ugarte	1-11	8
Ugarte	2-18	8
Ugarte	20-28	5
Ugarte	13-999	8
Ugarte	30-1000	8
Ugartebetxi	1-33	5
Ugartebetxi	2-26	5
Ugartebetxi	35-999	8
Ugartebetxi	28-1000	8
Urieta	2, 5-999	7
Urieta	1-3	8
Urieta	4-1000	8
Urrutia Jauregiko plaza	Plaza osoa	1
Uskategi	1	4
Uskategi	3-999	8
Uskategi	2-1000	8
Zabaleko	Kale osoa	5
Zabalibar	2	5
Zabalibar	1	5
Zabalibar	10 -1000	7
Zabalibar	3	7
Zabalibar	5-999	8
Zabalibar	4-8	8
Zarate	Kale osoa	8
Aloria	Entitate osoa	8
Artomaña	Entitate osoa	8
Astobiza	Entitate osoa	8
Baranbio	Entitate osoa	8
Delika	Entitate osoa	8
Larrinbe	Entitate osoa	8
Lekamaña	Entitate osoa	8
Lezama	Entitate osoa	8
Onsoño	Entitate osoa	8
Saratxo	Entitate osoa	8
Tertanga	Entitate osoa	8

Amurrio, 2021eko azaroaren 26a

Alkatea
JOSÉ RAMÓN MOLINUEVO LAÑA